

# NAZIO BATUEN ERAKUNDEAREN GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBUURAK ETA GIZA ESKUBIDEEN MEKANISMOAK

*ikuspegi feminista batetik*

GIH & HEH

Women's  
Major Group

## Garapen Iraunkorrerako 2030

**Agendak**, Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) izenez ere ezagunak, mundu mailako 17 helburu jasotzen ditu, elkarki lotuak eta berariaz diseinatuak "ekintza plan bat aurrera eramateko eta guztiarentzat etorkizun hobe eta iraunkorrago lortzeko". Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak onartu zuen 2015ean, eta asmoa da helburuak 2030erako betetzea.

GIHak eta haien helmugak asmo batekin zehaztu ziren: gaurko eta etorkizuneko belaunaldien beharrik babesteko beharrezkoak diren ekintzak abiaraztea.

Berdintasunik eza, pobrezia eta bazterkeria belaunaldiarteko arazoak dira, GIHtarako funtsezkoak, nabarmen oztopatzen baitute haurren eskubideen aplikazioa eta haurren ongizatea mundu osoan.

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (HEH) eta GIH bi agenda dira, alderdi anitz indartzen dituztenak. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak ikuspegi zabala eskaintzen du umeen eskubideei buruz, funtsezkoak direnak adin eta GIH guztietarako. Beraz, GIH guztiak inplementatzean, aintzat hartu behar dira bai HEH, bai haren protokolo fakultatiboak, bai eta Batzordearen iruzkin orokorrak ere.

ZER DIRA  
GIH-AK?

ZER DA GIH-EN ETA  
HAURREN ESKUBIDEEI  
BURUZKO HITZARMENAREN  
ARTEKO LOTURA ETA  
INTERAKZIOA?

ZER DA  
HEH?

**Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (HEH)** NBERen Batzar Nagusiaren ebazpenez onartu zen 1989ko azaroan; 1990eko irailaren 2an jarri zen indarrean, eta orain arte 196 gobernu berretsi dute. Gaur-gaurkoz, NBERen hitzarmen guztietatik haxe da berrespen gehien bildu dituenak, eta bertan, haurren eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak, osasun-arlokoak eta kulturalak azaltzen dira. HEH berretsi duten gobernuak aldian-aldian txostenak aurkeztu behar dizkiote **Haurren Eskubideen Batzordeari**, normalean bost urtean behin. Batzordea aditu independentez osatuta dago, eta **Komunikazioen prozedurari buruzko HIRugarren Protokolo Fakultatiboa** berretsi duten herrialdeetako haurren salaketa indibidualak ere jaso ditzake.





## NORA JO DEZAKEZU?

**Emakumeen Talde Nagusiaren** eginkizunetako bat da gizarte zibileko erakundeek –giza eskubideen alde egiten dutenek, garapen iraunkorrean oinarrituta eta arreta emakumeen giza eskubideetan jarrita– NBEen parte-hartzea eta beren ekarpena egitea erraztea.

**Child Rights Connect** sare independente bat da, irabazi asmorik gabea, nazioko, eskualdeko nahiz nazioarteko 9 erakunde bako gehiagok osatzen dutena, haur guztiak beren eskubideak baliaitu ahal izan ditzaten, HEH hitzarmenak ezartzen duenarekin bat eginez. Laguntza eskaintzen diete haur guztiei eta HEHren Batzordearekin bat egin nahi duten elkartekide guztiei.

**Girls Not Brides** mundu mailako aliantza bat da, 1.500etik gora erakunde kide dituena, haurren ezkontzak amaiaraztearekin eta adingabeko neskei beren potentziala garatzeko aukera ematearekin konprometituak.

**Mapa interaktibo** bat, UNICEFek egina. Hor ikus dezakezu zer lotura eta zer sinergia dauden Garapen Iraunkorrerako Helburu, helmuga eta adierazleen eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren artean.

UNICEFen **panel eta analisi** bat, herrialdeek haurren inguruko GIHen 44 adierazleen gainean izandako aurrerapena neurtzen duena, COVIDaren aurretik eskuragarri dauden azken datuak erabiliz.

**Gidaliburu** bat, Child Rights Connect sareak egina. Hor azaltzen da nola har daitekeen parte NBEren Haurren Eskubideen Batzordearen txostenak aurkezteko zikloan.



## KONTUAN HARTU BEHARREKO TRESNAK

## MUGIMENDUEN AHOLKUAK

Urtero, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoak txosten bat aurkezten du Garapen Iraunkorrari buruzko Goi Mailako Foro Politikoaren aurrean, haurren eskubideen ikuspegitik GIHak betetzeko konpromisoan zer aurrerapen egin diren azaltzeko. Gizarte zibileko erakundeek parte har dezakete prozesu horretan, alderdiek egiten dituzten kontsultetan parte hartuz, edo txostenerako beren aurkezpenak bidaliz.

Batzordeak urtean bitan antolatzen du Eztabaida Orokorreko Eguna, eta han, gai arazotsu zehatzen inguruko eztabaidan gizarte zibileko erakundeek eta haurrek parte hartzea eta beren aurkezpenak egitea sustatzen da. Haurrek beste era bateko aurkezpenak ere bidal ditzakete Eztabaida Orokorreko Egunerako; esaterako, bideoak edo audio-grabaketak.

Gobernu bati azterketa egiten ari badira, dela HEHren Batzordearen bidez, dela GIHen Borondatezko Azterketa Nazionalaren bidez, biak aldi berean edo une desberdinetan, emakumeen giza eskubideen aldeko erakundeek azterketa horiek baliaitu ditzakete; esaterako, honela:

**Txosten paraleloak egin ditzakete HEHren Batzorderako, eta txosten alternatibo bat Borondatezko Azterketa Nazionalerako, modu osagarrian, HEHren txosten paraleloetan GIHen konpromisoak jasota, eta alderantziz; edota batak nahiz besteak erabil dezake txostena, beste azterketa-prozesuetan jaso ezin diren hainbat auzi nabarmentzeko.**

Bi azterketen arteko aldiak aldaketarik gertatu gero, azken txostenean gehitu dezakete.

GIHen txosten alternatibo bat aurkez diezaioke HEHren Batzordeari, azterketan eta gobernuaren azken oharretan aintzat har dadin.

**CEDAWren Batzordearen azken oharrik edo gendio orokorrak erabil ditzakete, nork bere gobernuaren aurrean GIHak sustatzean.**

Giza eskubideen inguruan diren prozesu desberdin guztiak eta GIHen prozesu guztiak modu osagarrian erabiliz gero, neskatoen eskubideen babesa eta errespetu handiagoa lor daiteke.

**HEH HITZARMENAK EZ DU BERARIAZ AIPATZEN NESKATOEN EZKONTZA GOIZTIAR ETA DERRIGORTUA, BAINA BAI HORREKIN LOTUTAKO BESTE HAINBAT ESKUBIDE; ESATERAKO, SEXU-ESPLOTAZIOTIK ETA SEXU-ABUSUTIK LIBRE IZATEA (34. ARTIKULUA), HEZKUNTZA-ESKUBIDEA (28. ARTIKULUA) ETA ADIN-NAGUSITASUNA LORTZEA 18 URTE BETETZEAN (1. ARTIKULUA).**

CEDAWren 16. artikulua, bestalde, zehazki aipatzen du ume baten konpromisoak eta ezkontzak ez dutela legez indarririk izango, eta behar diren ekintza guztiak abiaraziko direla, legegintzakoak barne, ezkontzeko gutxieneko adina zehazteko. 5. GIHen 5. helmugak ere berariaz ezartzen du “jardunbide kaltegarri guztiak deuseztatzea, besteak beste umeen ezkontza goiztiar eta derrigortua eta emakumeen mutilazio genitala”.

